

Galtzak bete sagar

SAGAR SASOIAN egiten ditut urte osorako ozpin lanak. Sagarrena eta sagardoarena da nire ozpina. Botila sagardoaren kondar guztiak ozpin barrikara eta sagarra denean haren muztioa erantsi. Erretxindutako laguna bezain gutxi gustatzen zait minergia den ozpina, gezamina edo ezti-garratza nahia-go. Garrazten den sagardoa eta sagarraren muztio gozoa, nahasketa aproposa. Gozo gehixeago behar denerako frutak sartu eta lurrinak indartzeko belarrak, loreak... Aurtengo ozpina etxean ugari ditugun bi fruitu ezin gozoagoekin egingo dut: piko gorriekin (*Ficus carica*) eta mizpirekin (*Mespilus germanica*).

Lehengoan, Aiako Etxeta baserrian, Balentin nagusiak egiten duen burruntzian erretako antxumea, munduko onena, jatera elkartu ginenen artean kontu horiek ibili genituen. Bertako seme Joxek, etxeko upelak sagar muztioz bete genituela esandakoa "aitatzako lanak" izango ditugula zioen. Olideneko Mertxek esaera bat bota zuen: "Mundu honetan bi gauza ontzen dira hil ondoren: pertsona -hil eta gero entzuten da: ona hunan bada...- eta mizpira, usteldu arte ez baita gozatzen". Mizpirekin azokara sagarrak nola eramaten ziren gogora ekarri zuen Olasoko M^a Angelesek. Negua loratuko digu-

ten sagar horiek nola bildu eta jaso behar zirenak tarte luzea izan zuen. Aia bertako aldameneko Iruretaegia bailarako Iruretaeundi baserriko Patxik ederki asko azaldu zigun umetako bere lan hura: "Galtza zahar haundi batzuei beheko barrena josi, jantzi eta hanketan hestu izateko eta uhalez edo sokaz sorbaldatik eutsi. Arbolan gora igo eta sagarrak banaka-banaka heldu eta galtzetan sartu. Galtzak bete sagar, poliki-poliki jaitsi eta banaka-banaka saskietara. Horiek astoz etxera. Han, ganbaran, belar ondu pixka baten gainean banaka-banaka zabaldu miztoaz gora. Beti txortenez gora. Sagarra beti banaka-banaka, eta gozo utziz, bota gabe. Beidok ganbaran saskiak husterakoan tarraka soinurik entzuten bazen! Ederrak aditu beharko hituan!". Errezilak, Urtebiak, Mendiola, Intxaustia... berandu sagarrak, gogorrak eta jasotzeko egokiak. Saldiasen "egon sagarrak" deitzen dietela erakutsi zidaten lehengoan Arizkungo Gamioxearen Eneko eta Markelek. Gipuzkoako Zubietako Aizpuruko gure amona Joxepa zenak "golde sagarra" deitzen ziela dio bere seme Jexuxmarik. Sagarraren garrantzi historikoa ezagututa galtzak bete sagarretik etorriko da "galtzak bete lan" esaera... ■



GOIENA.NET-CC BY SA



Xapoa

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com